

Kimika

Wikipedia editatzean, batzuetan beldur pixka bat ere izaten dute hasiberriek; bereziki, eskolako lan baterako lehendabiziko aldiz Wikipediara ekarpena egiten ari diren ikasleek. Gida hau Wikipediara historiari buruzko edukiak gehitzeko lana eman zaien ikasleentzat da.

Izan zaitez zehatza

Wikipedia baliabide bat da, milioika pertsonak historiari buruzko informazioa jasotzeko erabiltzen dutena. Wikipedian historiari buruz irakurtzeko arrazoiak historia bezain askotarikoak dira. Pertsona eta gertaera historikoei buruzko eduki zehatz eta objektiboak dokumentatuz eta partekatuz, lagunduko duzu ziurtatzen mundu osoko jendeak giza jakintzaren eremu zabalago bat duela eskura.

Uler itzazu jarraibideak

Har ezazu denbora, hemengo iradokizunak irakurri eta ulertzeko; iradokizun hauek Wikipediara egiten dituzun ekarpenei baliorik handiena emateko bidea emango dizute. Jarraibide hauek betetzen ez dituen zerbait argitaratzen baduzu, hori konpontzeak denbora eta ahalegina eska dezake: edukia hobetzen eman zenezakeen denbora eta ahalegin bat. Jarraibide hauen barruan lan egiten eroso sentitzen ez bazara, esaiozu zure irakasleari ea Wikipediaz kanpoko lanen bat emango dizun.

Jardun ezazu beste editoreekin

Wikipediako esperientziaren parte bat da beste editore batzuen iritziak jaso eta haiei erantzutea. Ez itxaron azken eguneraino ekarpen bat egiteko; bestela, ohar eta iradokizun lagungarriak galduko dituzu. Wikilariak zure lanari buruzko galderei erantzun diezaiekete, edo beharbada galderak egingo dizkizute. Galderarik egiten badizute, erantzun iezaiezu. Esker-

tu iezaiezu emandako laguntza, eta lan egizu haiekin batera, artikulua hobetzeko. Beharbada aldaketak egingo dizkiote zure lanari; edo, jarraibide hauek betetzen ez baditu, artikulutik ezabatuko dute. Horrela gertatzen bada, ez ezazu berriz eduki hori sartu berterik gabe! Galdetu iezaiozu edizioa egin duenari, ea zergatik egin duen, eta ea nola hobetu dezakezun. Eztabaida funtsezko osagaia da Wikipediako prozesuan.

Saihestu ezazu hurbiletik parafraseatzea

Erabil itzazu zeure hitzak. Plagioa egitea, testuak kopiatuz edo hurbiletik parafraseatuz (hau da, hitz gehienak aldatuz, baina testu originalaren egitura eta esanahia mantenduz), arauen kontrakoa da.

Plagioa egitea zure unibertsitateko ohore lege akademikoa urratzea da. Plagioari, Wikipedian, beste wikilari batzuek antzemango diote, edo tresna automatikoei. Hori gertatzen denean, beharbada zure lana ezabatuko dute, eta online erregistratuta geratuko da plagio gertaera bat zure kontuari lotuta. Baliabide eta autore estandarrak ere —hala nola ikasliburuak— egile eskubideen pean daude, eta inoiz ez dira zuzenean kopiatu behar. Plagioari buruzko arauak Wikipediako alde guztietan aplikatzen dira, baita zure proba orriko zirriborro eta oharrei dagokienez ere.

Arazo hori saihesteko modurik onena da ziurtatzea zeure materiala benetan ulertzen duzula, eta horri buruz zeure hitzekin idazten duzula. Hurbiletik parafraseatzea zer den garbi ez badakizu, jar zaitez harremanetan zure unibertsitateko Euskara Zerbitzuarekin.

Jar ezazu zeure aletxea

Har ezazu astia arauak eta jarraibideak ulertzeko. Behar bada beldurgarri samarrak irudituko zaizkizu, baina aurki zure jakintzen eta zentzuaren ekarpena egiten ari zure zara, zuk eta milioika lagun gehiagok egunero erabiltzen duzuen baliabide batera.

Artikulu bat aukeratzea

Aukera itzazu gaikideek berrikusitako iturrietan literatura ugari duten eta Wikipedian ondo estalita ez dauden gaiak.

Iturri fidagarriak erabiltzea

Wikipediak «bigarren mailako iturriak» eskatzen ditu. Iturri horiek lehen edo bigarren mailako iturri bat edo gehiago laburbiltzen dituzte; eskuarki, gaiaren ikuspegi orokor bat emateko. Adibidez:

- Aldizkari fidagarrietan (konparazio baterako, Journal of the American Chemical Society edo Chemical Reviews) argitaratutako literatura-aztertzeak eta aztertze sistematikoak.
- Argitaratzaile fidagarrien (hala nola Oxford University Press, Cambridge University Press edo Wiley) monografikoak, kimikako entziklopediak eta testuliburu espezializatuak.

Zuhur joka ezazu ondorengo hauek erabiltzean:

- Blog argitalpenak
- Prentsa orokorreko artikuluak
- Gaikideek berrikusi ez dituzten iturriak.

Iturriak nola aipatu jakiteko, ikus ezazu | lasterbidea [WP:Erref.](#)

Zer da lasterbide bat?

[WP:Erref](#) erako testuari, Wikipedian, lasterbidea deritzo. Horrelako lasterbideak teklea ditzakezu Wikipediako bilaketa barran, bestela aurkitzen zai-lak diren orri espezifikotara erraz iristeko.

Idazten ari zaren artikulua egituratzea

Artikulu bakoitza bakarra izango da, baina hona hemen kimikako artikuluetarako gutxi gorabeherako jarraibide batzuk. Atalak erantsi, kendu edo berrantolatu ditzakezu artikulua gaiari egokitzeko.

Konposatu kimikoei buruz idaztea

- Konposatu kimiko infotaula: infotaula erabiltzen baduzu, jar ezazu artikulua hasieran (*ikus ezazu hurrengo orrialdea*).
- Sarrerako atala: artikuluren laburpen txiki bat.
- Propietateak: zer itxura du? Erabil itzazu baldintza estandarrak tenperatura eta presiorako.
- Agerpena: non agertzen da konposatu hori naturan? Bereziki aipa itzazu erabilera komertzial edo industrialetarako balia daitezkeen iturri naturalak, hala nola harrobiak edo meatzeak.
- Prestakuntza: zein dira konposatua ekoizteko edo arazteko prozesuak? Ez jarri urratsez urratseko jarraibideak.
- Erabilerak: nola erabili ohi da? Aipa itzazu bereziki laborategiko erabilerak, etxeoak, komertzialak eta industrialak.
- Erreakzioak: batez ere aipatu erreakzio nabariak; alde batera utzi erreakzio arraroak edo gutxi dokumentatuak.
- Historia: batzuetan, konposatuaren aurkikuntza edo lehenengo sintetizazioa aipagarria da (tefloien kasuan, adibidez). Era berean, historian garrantzitsuak izan diren erabilera industrialak sar ditzakezu atal honetan.
- Hornitzaileak: ez jarri hornitzaileen datuak, salbu eta merkatuan hornitzaile bakar eta nabarmen bat baldin badago.

Konposatu kimikoen motei buruz idaztea

- Sarrerako atala: artikuluren laburpen txiki bat.
- Egitura eta loturak: nola antolatuta daude atomoak molekula batean? Zein dira atomoen arteko loturen luzerak eta angeluak, eta zein da lotura kimikoaren indarra? (Loturaren indarra adierazteko, jar ezazu di-

soziazio energia.) Molekula konfigurazio egonkor bat baino gehiago baldin badago, aipa ezazu.

- Izendapena: konposatuak izen arrunten bat baldin badu, jar ezazu IUPAC izena eta izen herrikoak edota historikoak.
- Propietateak: zer itxura du? Erabil itzazu baldintza estandarrak tenperatura eta presiorako.
- Erreakzioak: azaldu itzazu erreakzio garrantzitsuak eta erreaktibitateari eragiten dioten faktoreak.

Zer da lasterbide bat?

Sarrerako atala Wikipediako artikuluko bateko lehenengo atala da. Sarrerako atal on bateko artikuluko osoa laburbiltzen du bizpahiru paragrafotan, eta testuingurua azaltzen du gaiaren alderdi garrantzitsuetarako. Lehenengo esaldiaren hasiera izan ohi da konposatu kimikoaren izen arrunta letra lodiz, eta deskribapen bat.

Azido urikoa karbonoa, nitrogenoa eta hidrogenoa duen azido organikoa da.

Idazten ari zaren artikulua garatzea

Segurtasunari buruzko atalak

Artikulu bat idazten duzunean, ez irrikaz ibili gai kimiko horri lotutako arriskuen zerrenda daukan atal bat gehitzeko. Gai kimiko bakoitzak arriskuen zerrenda amaigabea izan dezake; beraz, segurtasunari buruzko atalak oso gutxitan dira baliagarriak. Gai kimiko bat albisteetan agertzeko moduko gertaeren atzean dagoenean ere (adibidez, fabrika bateko leherketa), segur aski ez da gai kimikoaren artikuluan sartzeko eduki egokia. **Inoiz ez** eman mediku aholkurik. Noiz edo noiz, iturri egokiak dituen toxikologia informazioa baliagarria izan liteke.

Adieraz ezazu informazioa zehaztasunez

Eskolako lan gehienetan ez bezala, Wikipedian ez da onartzen ikerketa originalik. Wikipedia entziklopedia bat da, literaturak diotenaren laburpen bat aurkitzeko tokia. Ez da literatura hori interpretatzeko edo analizatzeko tokia.

Ez itzazu konbinatu iturri batetik baino gehiagotatik hartutako adierazpenak, iturri horietan berariaz adierazi ez den ondorio bat iradokitzeko.

Konparazio baterako, guztiz egokia da sodio gatz baten disoziazio-konstanteak adieraztea. Baina inola ere ez da egokia aurkitzen dituzun baliorik altuenak eta baxuenak

hartzea, eta sodio gatzetarako disoziazio-konstanteen gatzat balio horien arteko aldea aurkeztea. Gama hori aipatzeko, iturri bat behar duzu, hori hala dela dioena.

Wikipedia ez da ikerlan originaletarako tokia, hots, ez da egokia argitaratutako iturri fidagarririk ez duen gertaera, datu eta ideiarik txertatzea artikuluetan.

Gehitu egituraren irudiak

Egitura kimikoen edo erreakzio eskemen irudiak sortu eta partekatu nahi badituzu, ikus |lasterbidea **WP:Irud.** Igo, irudi horiek nola igo jakiteko (ez igo eskuz egindako marrazkirik).

Egitura kimikoei buruzko datuak ezin dira egile eskubideen pean jarri, baina oro har debekatuta dago liburu batetik eskaneatutako irudiak igotzea (salbu eta liburuko irudiek lizentzia libre egokia badute). Bestalde, baliagarria izango da notazio kimikoa erabiltzea, euskaraz (edo beste edozein hizkuntzatan) testurik jarri gabe. Horrela, zure irudia Wikipediako hizkuntza bertsio guztietan erabili ahalko dute!

Igo itzazu zure irudiak Wikimedia Commonsera, ez Wikipediara. Xehetasun gehiago aurkituko dituzu *Illustrating Wikipedia* gidan. Zure ikastaroko orrian aurkituko duzu gida horretara iristeko lotura.

Zer da konposatu kimiko infotaula?

Konposatu kimiko infotaula Wikipediako kimikoko artikuluetarako gehigarri bat da, guztiz lagungarria. Gai kimikoaren ikuspegi orokorra ematen du, begiratu bakarrean.

Kopia ezazu hemen behean dagoen txantiloia, |lasterbidea **Template:KimInfotaula** orritik. Kopia handik «Txantiloien formatu laburra eta erraza» kodea, eta itsatsi ezazu idazten ari zaren artikuluen hasieran. Kodea ingelesez dago oraingoz.

```
{{Chembox
| Section2 =
| ImageFile = {{Chembox Properties
| ImageSize =
| ImageAlt = | Formula =
| IUPACName = | MolarMass =
| OtherNames = | Appearance =
| Section1 = | Density =
{{Chembox Identifiers
| CASNo =
| PubChem =
| SMILES =
}}
| Section3 = {{Chembox Hazards
| MainHazards =
| FlashPt =
| AutoignitionPt =
}}
```

Inoiz ez ezabatu ezertxo ere txantiloaren kodetik. Eredu bateko parametroa zein den ez badakizu, bete gabe utzi besterik gabe. Horretarako, lerro bakoitzeko berdintza ikurraren eskuinean, bete ezazu ahal duzuna (ez ukitu «Section1», «Section2», «Section3» testua). Ingeleseztan baldin badakizu, eremu gehienetan azalpenik ez duzu behar hor zer datu jarri behar den jakiteko, eta datu horiek eskuragarri daude kimikako informazioaren iturri fidagarrietan (adibidez: SciFinder, ChemSpider, EINECS). Aipa itzazu iturri horiek, bai eta artikulua horretan idazten duzun beste edozein daturen iturriak ere.

«ImageFile» lerroan, irudi horrek Wikimedia Commons webgunean duen izena besterik ez da jarri behar. Adibidez:

ImageFile = Aluminium_oxide2.jpg

Aukera gehiagoren berri izateko, ikus | lasterbidea [Template:KimInfotaula](#) orria.

Aholku balagarriak

Idazten hasten zarenean, gogoan izan itzazu jarraibide hauek:

- **Inoiz ez eman mediku aholkurik.** Ez eman, orobat, pozoiei buruzko informaziorik, ez eta konposatu kimikoei lotutako larrialdiei buruzkorik ere. Artikuluan txertatzen duzun informazioan giza osasunari buruzko adierazpenik baldin badago, iturriak aipatzeari dagokionez oso jarraibide zorrotzak bete behar dituzu.



Argitalpen honetan jasotako edukia eta irudiak Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 lizentziaren pean daude erabilgarri, besterik adierazi ez bada.

Wiki Hezkuntzako marka erregistratzekotan dago. Wikipediako logoak eta hitz markak Wikimedia Fundazioaren marka erregistratuak dira. Marka horien erabilera Wikimediaren marka politikaren mende dago, eta horiek erabiltzeko beharbada beharrezkoa izango da baimena (https://wikimediafoundation.org/wiki/Trademark_policy). Wikipediaren markei buruzko galderak egiteko, idatz ezazu trademarks@wikimedia.org helbidera (ingelesez).

Eskerrik asko wikilari hauei: User:Another Believer, User:AustralianRupert, User:Cinderella157, User:Sadads eta User:Wehwalt, gida hau egiteko laguntza baliotsua eman dutelako.

Itzultzailea: Xabier Armendaritz.

- Termino teknikoak lehenengo aldiz aipatzean, eman ezazu azalpen labur bat parentesi artean euskarara errazean, ahal bada.

- Idatz itzazu datu objektiboak. Ez idatzi jendea gidatzeko edo konbentzitzeko asmoz.

Azken gogoetak

- Ez utzi lana azken unerako! Wikipediako artikulua on eta fidagarri idazteko, denbora behar da. Ez itxaron azken minuturaino. Blokeatuta gelditzen bazara, eska iezaiozu irakasleari epe luzeagoa; hobe duzu hori, Wikipediara jarraibide hauek betetzen ez dituen edukia gehitzea baino.

- Zuk landutako orriak sar itzazu zure jarraipen zerrandian, eta tarteka begira ezazu ea zer aldaketa izan dituzten. Interesgarria izan daiteke zuk idatzitako artikulua nola haziz doan ikustea. Gainera, beharbada iruzkinak eta iradokizunak jaso dituzu beste wikilari batzuek, eta beharbada garapen berrietan parte hartu nahiko duzu.

Beste galderarik baduzu?

Baduzu beste galderarik iturri onak bilatzeaz, nabaritasunaz edo, azken batean, edozertaz? Beti eska diezaiokezu laguntza zure ikastaroko orrian zehaztutako Wikipediako edukietako adituari. Era berean, galdera idatz diezaiekezu wikilariari, Txokoan. | lasterbidea [WP:-Txokoa](#).



E U S K A L

WIKILARIEN

K U L T U R A E L K A R T E A

